Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Etxezarreta Landa

Beasain, Gipuzkoa (1941)



Aurkibidea

Biografia



Aratz-Matxinbenta auzoko Otobarrena baserrian jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen. Antzinako hainbat kontu, ipuin eta istorio kontatu zituen 2005ean egindako elkarrizketan . Matxinbentako bizimoduaz ere hitz egin zuen eta baita ehizako kontuez ere, ehiztari amorratua izaki.

Zintak

BEA-026

- **Proiektua**: Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier

- **Data**: 2005-10-13
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Bost herrik osatzen zuten Matxinbenta auzoa

- **Erref**: BEA-026/002
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:01:58. **Bukatu**: 00:04:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Matxinbenta auzoa bost herrik osatzen zuten: Beasai, Ezkio, Itsaso, Azpeitia eta Beizamak alegia. Gaur egun daudenak baina etxe eta baserri gehiago zeuden auzoan garai hartan. Lau errota ere izan zituen.

2. Eskola garaia

- **Erref**: BEA-026/003
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:04:08. **Bukatu**: 00:05:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Zazpi urterekin hasten ziren eskolan eta hamalau urte ingururekin, komunio handia egin ostean, amaitzen zuten. 50 ume inguru egoten ziren Matxinbentako eskolan. Eskolaz gain, baserriko lanetan lagundu behar izaten zuten ume gehienek.

3. Hiru taberna zeuden: "erdikoa", "behekoa" eta "eskinana"

- **Erref**: BEA-026/004
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:05:32. **Bukatu**: 00:07:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Hiru taberna zeuden: "Erdiko ostatu", "Txantxona" eta "Behekoa" . Jendez beteta egotea zen ohikoena. Kanpotik ere jende ugari etortzen zen afaltzera: txuletak, oilaskoa, ardikiak eta, batez ere, ezkailuak.

4. Santa Ageda festak

- **Erref**: BEA-026/006

- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 00:08:27. **Bukatu**: 00:12:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Santa Ageda inguruan ospatzen ziren herriko jaiak. Bezperan hasi eta zortzi egun irauten zutela kontatzen du. Jaietarako txekorra hil eta bizilagunen artean partitzen zen. Egitarauari buruzko azalpenak ematen ditu. Inguru guztietako jendea etortzen zen jaietara.

5. Lasto-zuziaren argitan mezatara

- **Erref**: BEA-026/007
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:12:10. **Bukatu**: 00:13:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:
Goizeko zazpiretan izaten zen meza egunero. Ilunpetan joaten ziren oso sarri. Bidea argiztatzeko farolak edo lasto-zuziak erabiltzen zituzten. Haiei buruzko azalpenak ematen ditu.

6. Igandeko giroa

- **Erref**: BEA-026/009
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:13:41. **Bukatu**: 00:15:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:
Igandeetako giroa du hizpide. Meza ostean, gizonezkoak tabernara joaten ziren. Emakumerik ez zen sartzen tabernara. Igande arratsaldeetan erromeria izaten zen. Frontoian pilota partiduak antolatzen zituzten edo bestela, karta jokoan jarduten zuten. Iluntzerako, bakoitza bere etxera erretiratzen zen oinez.

7. Bideak auzolanean garbitzen genituen

- **Erref**: BEA-026/010
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:15:37. **Bukatu**: 00:17:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Bideak nahiko txarrak izaten ziren. Lokaztuta egoten ziren sarri. Bideak

konpondu eta garbitu egin behar izaten ziren auzolanean urtean behin edo bitan. Gorputz-bidea auzoko bide nagusiari esaten zitzaion.

8. Kortoloia, nola eta zertarako

- **Erref**: BEA-026/013
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:22:25. **Bukatu**: 00:25:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:
Behi simaurra eta otea nahastuz egiten da kortoloia deritzon ongarria. Prozesuari buruzko azalpenak ematen ditu.

9. Gaztainen aprobetsamenduaz

- **Erref**: BEA-026/014
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:25:18. **Bukatu**: 00:28:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:
Iraila eta urria artean hasten ziren garoa ekartzen. Gaztainak eta sagarrak biltzen ere sasoi horretan hasten ziren. Sagasti handiak zeuden eta sagar asko alferrik galtzen zen lurrean. Gaztainak nola jasotzen zituzten kontatzen du. Gaztainei "morkola" (morkotsa) kentzeko propio egindako egurrezko pintza modukoari "matxarda" esaten zaio. Gaztaina hoberenak etxerako edo saltzeko izaten ziren; bigarren klasekoak ardientzako eta txarrenak, "gaztaina xildokie", astoentzat.

10. Garia egiteko lurra prestatzea

- **Erref**: BEA-026/015
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:28:21. **Bukatu**: 00:31:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:
Neguko baserriko lanak. San Martin inguruan garia egiteko lurrak prestatzen hasten ziren. Sail handiak landu behar izaten zituzten. Goldea eta laiak erabiltzen ziren lurra harrotzeko. Prozesua eta lanabesei buruzko azalpenak ematen ditu.

11. Artoa eta garia: lan-prozesua eta lexikoa

- **Erref**: BEA-026/016
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:31:30. **Bukatu**: 00:34:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:
Soroetako lanei buruz ari da hizketan. Udaberrian artoa egiten hasten ziren. Artoa eta garia egiteko lurra nola prestatzen zen azaltzen du. Artoa jorratu, garia moztu... prozesua eta lexikoa.

12. Lur jasotzea

- **Erref**: BEA-026/018
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:35:39. **Bukatu**: 00:38:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Abuztu amaieran egiten zen urtarriletik aurrera jasoko zuten arbia. Martxo inguruan, arbia amaitutakoan, lurra jasotzea egiten zen auzolanean. Sorbalda gainean garraiatzen zituzten soro barrenetik gora lurrez betetako saskiak. Egurrezko karroekin egingo zuten geroago. Aurrerapen izugarria iruditzen zaio hau.

13. Lurra "manetzea"

- **Erref**: BEA-026/019
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:38:47. **Bukatu**: 00:39:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
"Lurra manetu": artoa eta arbia egin aurretik lurra prestatzea.

14. Idaurra eta txanketea

- **Erref**: BEA-026/022
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:41:57. **Bukatu**: 00:43:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Eguzkipean ihartzeko zabaldu eta jo egiten zuten gero. Idaurraz baba jotzen zuten, aletzeko. Eta baita koltxoiak egiteko artilea ere.

15. Arto-zuritzea eta aletzea

- **Erref**: BEA-026/023
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:46:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Artoa nahiz baba, aletu egiten da. Hitz horren erabilerari buruzko azalpenak. Aletu aurretik, zuritu egin behar izaten zen artoa. Auzolanean egiten zen arto-zuritzea.

16. Basoak garbi mantendu beharra

- **Erref**: BEA-026/025
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:47:57. **Bukatu**: 00:49:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Negu partean egiten zen basoetan lana. Garbitu nahiz bota. Egur guztia aprobetxatzen zen orduan. Oso garbi mantentzen zituzten basoak, ez gaur egun bezala.

17. Inguruko basoetan oilagorretan

- **Erref**: BEA-026/026
- **Iraupena**: 0:04:22. **Hasi**: 00:49:24. **Bukatu**: 00:53:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Ehizarako zaletasun handia izan zuen gaztetan. Kartutxoak erosteko dirurik ez zegoenez, zepoekin harrapatzen zituzten txori txikiak. Etxe inguruan, urte guztian zehar bota zitekeen oilagorra. Gaur egun ia ez da ikusi ere egiten.

18. Inguruko pizti ezberdinak

- **Erref**: BEA-026/028
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:55:48. **Bukatu**: 00:59:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:
Azeriak lazoarekin harrapatzen ziren. Erbitan ere jende asko ibiltzen zen. Aspaldian desagertu ziren erbiak hala ere. Inguruan ikus zitezkeen piztia ezberdinak izendatzen ditu. Lepazuriaren narruak diru asko balio zuen lehen. Katagorriaren haragia jateko benetan gozoa dela aitortzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-17

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com